

## LIBURUZAINA ISPILUAREN AURREAN: Liburuzainaren oinarrizko jakintzak gurasoei aholkuak emateko

1 / 2



ASOCIACIÓN VASCA DE PROFESIONALES  
DE ARCHIVOS, BIBLIOTECAS Y CENTROS DE DOCUMENTACIÓN  
ARTXIBATEGI, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO  
ZENTROETAKO PROFESIONALEN EUSKAL ELKARTEA

### Irakasleak

**Imanol Mercero.** Filologoa, ikertzailea eta literatur kritikaria. Galtzagorri Elkarteko Liburuen Altxorra egitasmoa dinamizatzen du eta Irakurketa Mintegia koordinatu.

**Iñaki Markotegi.** Eskola liburuzaina, irakaslea eta Galtzagorri Elkarteko lehendakaria.

### Oinarriak

Liburutegietako jardunaren parte da bezeroari eskaintzen zaion arreta. Testuinguru honetan aholkuak ematea izaten da, maiz, elkarrizketaren parterik labainkorrena.

Literatur gomendioak emateko hainbat irizpide erabili behar dira aldi berean, sinplea dirudiena, baina zinez korapilatsua dena.

Haurrak eta bere inguruneak literaturarekin daukaten harremana izaten da oinarrizko lehen mugarrria, baina badira beste asko gomendioa erabakitzeke orduan: adina, gaitasuna, zaletasuna, berezkoatasuna, bakarka ala lagundurik irakurriko duen,... eta guztietan giltzarria izaten dena: irakurketa borondatezkoa den, ala behartua.

### Helburuak

Proposatzen dugun ikastaroaren helburu nagusia liburuzainari bezeroekin duen hartuemanetarako tresnak eskaintzea da. Formazioa lau esparrutan aurreikusten da xedeari ikusmira anitzetatik heltzeko asmoarekin:

1. Haurraren irakurketa gaitasunaren garapenez jardungo dugu, haurraren ahalmenak eta behar pedagogikoak, eta gurasoen desirak bereizten jakiteko.
2. Euskal sortzaileen eta euskarazko sorkuntzen historia ezagutuko dugu, nork-zer-noiz galderei erantzunda gaiaren perspektiba orokor bat garatzeko.
3. Ikuspuntu orokor batetik aztertuko dugu haur literaturaren ekoizpena, gurera ekarri diren ezinbesteko obrak zeintzuk diren eta nolakoak diren deskribatuta, erreferentzien katalogoa osatzeko.
4. Azken hamarkada hauetan literaturak hartu duen norabideaz hausnartuko dugu, "baloreen literatura" deitu izan zaionari fokua jarrita.

Ondorioz, literatura baloratzean erabiltzen ditugun irizpideak zeintzuk diren, eta zeintzuk izan beharko luketen aurreikusiko dugu.

#### Egutegia · Calendario :

· Irailak 30 eta urriak 1  
2016

#### Ordutegia · Horario :

9:00 – 14:00

#### Tokia · Lugar:

ARTIUM  
Francia, 24  
Vitoria-Gasteiz

#### Iraupena · Duración :

10 h.

#### Matrikula:

Bazkideak · Socias/os  
(Galtzagorri ere)

100€

Ez bazkideak · No socias:

150€

Langabeak · Desempleadas:

50€

#### Contacto:

[aldee@aldee.org](mailto:aldee@aldee.org)

tel.: 943462024



Art  
ium



## LIBURUZAINA ISPILUAREN AURREAN: Liburuzainaren oinarrizko jakintzak gurasoei aholkuak emateko

2 / 2



ASOCIACIÓN VASCA DE PROFESIONALES  
DE ARCHIVOS, BIBLIOTECAS Y CENTROS DE DOCUMENTACIÓN  
ARTXIBATEGI, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO  
ZENTROETAKO PROFESIOALEN EUSKAL ELKARTEA

### Ikastaroaren Erronkak:

Partaideak irakurketarako gaitasuna noiz eta nola hartzen den ezagutuko du.

Euskal sorkuntza literarioaren historiaren oinarriak finkatuko ditu, gure egileen ibilbide literarioa ezagututa, bertako literaturak eskaintzen digunaz jabetzeko.

Ezinbesteko obratzat zein eta zergatik jotzen diren ezagutuko du partaideak.

Joera nagusien ekoizpena ezagututa, iritzi kritikoa garatuko du.

### Programa:

#### Irailak 30:

- Aurkezpena (5')
- ADINAK ETA LIBURU MOTAK: Haurraren irakurketa gaitasunaren garapena I (30')
- GURASOEN HAURTZAROKO IRAKURKETAK: Euskal Herriko H.G.L. Historia I (90')
- Atsedena (30')
- GOMENDIO BIKAINAK: Bibliografia hautatua I (90')
- Atsedena (10')
- BALOREEN LITERATURA: Ispilu liburuak eta aldarrikapen literatura (40')

#### Urriak 1:

- Aurreko eguneko errebaso laburra (5')
- ADINAK ETA LIBURU MOTAK: Haurraren irakurketa gaitasunaren garapena II (30')
- AZKEN BI HAMARKADATAKO SORKUNTZA: Euskal Herriko H.G.L. Historia II (90')
- Atsedena (30')
- GOMENDIO BIKAINAK: Bibliografia hautatua II (90')
- Atsedena (10')
- OBRA BAT BALORATZEKO IRIZPIDEAK: Irakurle kritikoak (40')

#### Egutegia · Calendario :

· Irailak 30 eta urriak 1  
2016

#### Ordutegia · Horario :

9:00 – 14:00

#### Tokia · Lugar:

ARTIUM  
Francia, 24  
Vitoria-Gasteiz

#### Iraupena · Duración :

10 h.

#### Matrikula:

Bazkideak · Socias/os  
(Galtzagorri ere)

100€

Ez bazkideak · No socias:

150€

Langabeak · Desempleadas:

50€

#### Contacto:

[aldeee@aldeee.org](mailto:aldeee@aldeee.org)

tel.: 943462024



Art  
ium

